



LEHENDAKARIAREN ATENTATUAREN GAITZESPENA

2009ko ekainaren 19a

Bihozmin sakonetik eta, amorrua eutsirik, lehenengo eta behin, nire gaitzespen borobilena eta gaur goizean Arrigorriagan ETAk gauzatutako atentatuaren aurkako nire erabateko arbuioa adierazi nahi dut.

Berriz ere terroristek herri honetako langile baten bizitza suntsitu dute, Polizia Nazioaleko agente baten bizitza non egunero euskaldunon segurtasuna eta askatasuna bermatzea eta legearen eta zuzenbidezko estatuaren betetzearen zaintzea besterik ez baitu beste inolako deliturik egin.

Eduardo Antonio Puelles, terrorismoko beste biktimak bezala, gutako bat zen. Euskadiren eta euskaldunen defendatzaile bat, eta terroristek honen bizitza proiektua zapuztu dute beraiek dakiten era bakarrean, erailhiz.

Hain momento larri eta zail hauetan, bere senitartekoei, batez ere bere emazteari eta semeei; bere lagunei hurrengo hau jakinarazi nahi diet, gure hurbiltasuna, gure elkartasuna eta gure maitasuna dutela (ETako gizatxarrak eta hiltzaileak jasaten ez dituen euskal gizartearen gehiego batena). Jakin behar dute berain ondoan

gaudela eta beti Gobernu honen sostengua izango dutela, behar dutenen guztirako.

Halaber, Polizia Nazionalari eta Estatuko Segurtasun Indarrei osotasunean nire sostengua eta elkartasuna helarazi nahi diet. Eusko Jaurlaritza zuekin dago eta guztiok elkarrekin terrorismoarekin amaitzeko eta gaur gertatutakoa berriro inoiz ez gerta dadin ahalbidetzeko lan egingo dugula.

Baina gaitzespenaren eta arbuioaz aparte, ETari oharpen argi bat egin nahi diot: zuek deuseztatuko zaituztegu. Zuzenbidezko Estatuaren indar guztia eta legearen baliabide guztiak aplikatuko ditugu erasotzaileei inolako atsedetarik ez emateko. Beraiek min egitearen bidea erakutsi digute, guk ordea, kartzeleralo bidea erakutsiko diegu.

Minduak gaude, erasotu baikaituzte. Baina gure konpromiso irmoa mantentzen dugu eta legearen aplikazioa, ekintza poliziala eta judiziala eta euskal gizartearen gehiengo baten babesak, terroristak bakartzea lortuko dute, gero eta bakartiago utzi, indarkeriaren zilegitasuna kentzea eta gaur dagokigun drama hau berri ez dadin errepika etorkizunean.

Euskal gizarteak terroristen aurkako baztertze olatuarekin eta Euskadin bakearen aldeko ohikurakin bat egin behar du. Hartara, atentatu hau gaitzesteko ekitaldiekin bat egiteko dei egiten dut, eta bihar eguerdiko 12.00etan erakunde guztien aurrean elkarteratzeak (EUDELekin dagoeneko hitz egin dugu honen gainean) eta bihar arratsaldeko 18.00etan Bilboko kaleetatik joango den manifestaldia

deitzen ditut ETaren aurkako eta Bakearen eta Askatasunaren aldeko Euskadiko Ohiu berri bat izateko.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko ekainaren 19a